

Bergarako liburutegiak gaztetxo zein helduentzako ekintza ugari prestatu ditu

Ostiraletik aurrera toki eta kultura askoren topaleku bihurtuko da zerbitzu hau

Bergarako udal liburutegiak egitarau zabala prestatu du datozen egunetarako. Era honetan, ostiralean Liburutegi Eguna dela eta, aurtengo Irakurri kanpainari ekingo diote. Eusko Jaurlaritzarekin batera, Liburutegiak topaleku lelopean hainbat ekintza jarriko dituzte abian abenduaren 18ra arte, "kultura guztien arteko errespetua sustatzeko toki eta kultura ezberdina elkartoki izateko" helburuarekin.

Beraz, ostiralean bertan, sei eta hamar urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako tailerra eskainiko dute, 17.00etatik 19.30era. "Haur bakoitzari irakurpuntu bat emango zaio doan, eta nork bere izena hainbat hizkuntzatan, eta grafia desberdinetan idazteko aukera izango du", adierazi dute antolatzaileek.

Honetaz gain, kanpainak irauten duen bitartean, 12 eta 16 urte arteko neska-mutilentzako literatura lehiaketa ere egingo dute. Liburutegi zerbitzuaren webgunean dagoen kontakizunari amaiera bat idaztean da-tza ekimen horrek, eta lanak banaka zein taldeka aurkez daitezke. Sariketa horren oinarriak herriko ikastetxeetan jaso ahal izango dituzte interesatuek. Halaber, azaroaren 3an, Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroko ikasleek ipuin kontaketa goza-tzeko parada izango dute, kasu honetan, liburutegiko erakusketa gelan, 15.30etik 17.00etara.

Ipuinak eta bisita gidatuak Bestalde, datorren urriaren 31tik abenduaren 12ra arte, lau eta sei urte bitartekoentzat ipuin kontaketa jarriko dituzte martxan ostiralero. Leire Iruin arduratuko da 17.45etik 18.30era egingo diren saioak koordinatzeaz.

Aldi berean, udal liburutegiko arduradunek gogoratu dutenez, edozein herritarrek parte har dezake instalakuntzetan zehar egingo diren bisita gidatuetan. >a.d.